



ONDARROAKO UDALA

(2019-07-10 behin betikotzat emana)

**BALDINTZA-PLÉGUA IBAIONDO 4KO UDAL APARKALEKUAN IBILGAILUENTZAKO PLAZAK ERABILERA PRIBATIBOAN EDUKITZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOA HARTU-EMATEKO BALDINTZA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAK ETA EKONOMIKOAK**

- I. KAPITULUA – EMAKIDAREN EZAUGARRIAK.***
- II. KAPITULUA – EMAKIDADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.***
- III. KAPITULUA – ZIGORTZEKO ARAUBIDEA.***
- IV. KAPITULUA – EMAKIDAK EMATEKO PROZEDURA.***
- V. KAPITULUA – HUTSIK DAUDEN PARTZELEN ESLEIPENA***
- VI. KAPITULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.***

- I. ERANSKINA- ESKAERA EREDUA***
- II. ERANSKINA.- IBAIONDO 4.KO GARAJE-EMAKIDADUNEN ELKARTEAREN ESTATUTUAK.***



## ONDARROAKO UDALA

### ***I. KAPITULUA - EMAKIDAREN EZAUGARRIAK.***

#### ***1. artikulua- Pleguaren zertarakoa.***

Baldintza-Plegu hau egin da aginduzkoak izango diren baldintza juridiko administratiboak eta ekonomikoak zeintzuk izango diren finkatzeko, ibilgailu-automobilentzako aparkalekuko partzelak erabilera pribatiboan emateko orduan. Ibaiondo kaleko 4 zenbakian dagoen aparkaleku-eraikinean soto bietan egongo dira partzelok. Jarritako baldintza hauetatik eratorriko dira baita ere geroko kontratuak.

Hau agiri hau oinarri-oinarrizko agiria denez gero lehentasuna dauka. Udalak beste agiri batzuk eman baditzake ere argibide gehiago emateko auziren bat egotekotan oinarritzko agiri honi helduko zaio beti.

Horregatik, dokumentazio grafikoan adibidez, Plegu honi erantsitako planoetan, hain zuzen, zerbait aldatu beharra balego posible litzateke baldintza hauetako artikulua betetzekotan.

#### ***2. artikulua- Izaera juridikoa.***

Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa edukitzeko emakida da hau, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiak, 1986ko apirilaren 13koak, 78.1.a) artikuluan xedatzen duen bezala; hortaz, izaera administratiboa dauka, beronek eratorrita egingo diren kontratuek ere izaera bera daukate.

#### ***3. artikulua.- Emakidaren zertarakoa.***

Aparkaleku-eraikinean ondorengo partzelak dagoz:

- **129 aparkaleku-partzela.** Horietatik, 3 gordeta daude (17, 86 eta 111 zenbakidunak) mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat .
- **8 aparkaleku-partzela trasteleku batekin lotua** (15, 16, 39, 40, 84, 85, 108 eta 109 zenbakidun partzelak). Horietatik, 1 gordeta dago (40 zenbakia) mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.

**Mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuetarako plazak:** Mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako gordetako dauden partzelak erabili ahal izateko, lehenago azaldutakoaren arabera aurkeztu beharreko agiriez gain, erreserbarako eskubidea egiaztatu beharko dute Administrazio honek edo arlo honetan eskumena duen beste batek emandako dokumentu edo txartel baten bidez (256/2000 Dekretua, 2000ko abenduaren 5koa, Dekretu honen bidez, *“ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela”* arautu eta Europako Batasuneko estandarri egokitu da).



## ONDARROAKO UDALA

Era berean, pertsona horiek izango dira ibilgailuaren gidariak eta jabeak

**Partzelen zenbaketa:** Partzela bakoitza mugatuta eta zenbatuta dago. Udalak erabakita dauka bakoitzari zein zenbaki dagokion. Dena dela, Ondarroako udalak, arrazoi teknikoak bide, behin betiko emakida egin aurretik leku-kopurua aldatzeko edo horien zenbakiak aldatzeko aukera izango du.

Partzela bakarrik erabiliko da ibilgailu partikularrak (turismoak) aparkatzeko. Sarrerako ateko altueragatik nabaria denez, ibilgailu altuagorik ezin da sartu, horregatik emakidadunek ezin diote Udalari ezer erreklamatu.

### *4. artikulua - Emakida-epea.*

Aparkaleku-partzela eta trastero bakoitzeko emakidak **30 (hogeita hamar) urteko epea** dauka. Epea kontatuko da dagokion kontratu administratiboa sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Data hori zein den agertu beharko da emakida eratzeko administrazio-agirian.

Emakidaren epea ezin izango da luzatu eta, ondorioz, betetakoan, Ondarroako udalaren esku geldituko da berriro garaje-aparkalekuaren eta trasteroen jabetza osoa, baldintza-agiri honetan aurreikusitako terminoetan.

Emakidaren epea amaitzearekin batera amaituko da baita ere jabari publikoaren erabilera pribatiboa. Horren ondorioz, aparkalekuko partzela emakidadunaren eskubide guztiak, edo balego, pleguak arautu duenaren arabera haren ondorengoenak, Ondarroako Udalak berreskuratuko ditu batere kalte-ordainik gabe.

Amaieraren berri emateko nahikoa da Korporazioak interesatuari idatzi baten bitartez jakinaraztea, ezaguna duen azken helbidera bidaliko dio eta bestela, epearen amaiera ohi duen moduan iragarri.

Ez badu amaiera-epea bete emakidadunen batek Udalak dagokiona egingo du artikulua hauen arabera: Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiko 120, 130 eta 131. artikulua.

Hala ere, Udalak bere garaian aparkaleku plazen herri-erabilerarako emakida luzatzea erabakiko balu, plaza horiek lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango dute egungo emakida amaitzen den egunean emakiden titularrak direnek.

### *5. artikulua - Emakida eskatzeko lehentasunak eta bete beharreko baldintzak.*

5.1. BALDINTZA BEREZIAK: Partzelen kopurua lizitatzailleen kopurua baino txikiagoa bada, honako lehentasunen arabera esleituko dira, bakoitza bere baldintza bereziekin:



## ONDARROAKO UDALA

5.1.1. **Lehenengo mailako lehenetasuna**. Bi baldintza hauek bete behar dira:

- a) Eskariak aurkezteko epearen aurretiaz Ondarroako Udal erroldan inskribatuta egotea.
- b) Gutxienez ibilgailu automobil baten titular izan beharko da eta ibilgailu horren zergak udalerrian ordaindu beharko dira. Enpresaren ibilgailua izateagatik, ibilgailuaren titularra izan ezean, ziurtagiri bidez frogatu beharko da nork berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.

5.1.2 **Bigarrena mailako lehenetasuna**: Bi baldintza hauek bete behar dira:

- a) Gutxienez ibilgailu automobil baten titular izan beharko da. Enpresaren ibilgailua izateagatik, ibilgailuaren titularra izan ezean, ziurtagiri bidez frogatu beharko da nork berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- b) Jarduera Ekonomikoen Zergan altan daudenak, Ondarroako udalerrriaren eremuan, gutxienez, edozein epigrafe ekonomiko edo profesionalen.

5.1.3 **Hirugarren mailako lehenetasuna**: Bi baldintza hauek bete behar dira:

- a) Gutxienez ibilgailu automobil baten titular izan beharko da. Enpresaren ibilgailua izateagatik, ibilgailuaren titularra izan ezean, ziurtagiri bidez frogatu beharko da nork berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- b) Ondarroako udalerrian etxebizitza bat dituztenak, eta Ondasun Higiezin Zerga ordaintzen dituztenak.

5.1. **BALDINTZA OROKORRAK**: Eskatzaile guztiak, gainera, ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

5.2.1. Ez eduki batere ezintasunik Administrazioarekin kontratatzeke, hau da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan finkatzen duen debekurik ez eduki.

5.2.2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea

Dagozkion adierazpenak interesdunak aurkeztu behar duen eskabide-ereduan sartuta egongo dira. Hala ere, adjudikaziodunek Ondarroako Udalari baimena eman beharko diote bere izenean edo/eta ordezkapenean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituztela egiaztatzeke.

Derrigorrezkoa da baldintza horiek guztiak betetzea, baldintzaren bat betetzen ez bada ez dago zuzentzerik. Eskabidea aurkeztu den momentuan norbere erantzukizuna da egiten den aitortzea, ulertuko baita aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta Administrazioarekin kontratatzeke baldintza guzti-guztiak betetzen dituela. Eskabidea aurkezteak berarekin batera dakar onartzea bai Baldintza-Plegu hau bai kontratu agiri guztiak, oso-osorik eta salbuespenik gabe.



## ONDARROAKO UDALA

Emakidak iraupena duen bitartean aurreko baldintzak bete beharko dira. Emakidadunak jakinarazi beharko dio Udalari 15 eguneko epean, ezintasun edo ez-bateraezintasunen bat izaten duenean.

Udalaren esku dago eskabidean agertzen diren datuak egiaztatzea. Eskatzailearen erantzukizuna da eskabidea bete duenean faltsukeria ibili bada eta horrelakorik gertatuko balitz berehala baztertuko litzateke bere eskabidea.

Behin-betiko emakida emanda balego ere, faltsukeriaren bat atzemango balitz eskabideko daturen batean, lehenengo interesatuari entzunaldi baterako deitu eta gero, amaiera ekarriko luke eta beste horrenbeste gertatuko litzateke fidantzarekin eta ordaindutako prezioarekin, emakidadunak galdu egingo litzuzke-eta.

### 6. artikulua - **Emakidaren prezioa.**

6.1. **Aparkaleku-partzela** bakoitzaren emakidaren prezioa hauxe da: **14.600 €**. Prezio bera izango dute partzela guztiek, haien kokalekua edozein izanik ere.

6.2. **Aparkaleku-partzela trastelekuarekin** lotua (15, 16, 39, 40, 84, 85, 108 eta 109 zenbakidun partzelak) bakoitzaren emakidaren prezioa hauxe da: **20.500 €**. Partzelok prezio bera izango dute, haien kokalekua edozein izanik ere.

Gainera, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Araudiaren arabera ( 1/2011, martxoaren 24ko Foru Araua ) esleipendunak emakidaren **prezioaren % 4** ordaindu beharko du.

Aparkaleku-partzela trastero gabe:  $14.600 * \% 4 = 584 \text{ €}$

Aparkaleku-partzela trasteroarekin:  $20.500 * \% 4 = 820 \text{ €}$

### 7. artikulua- **Fidantza.**

Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiko 90. artikulua betetzeko, behin-betiko emakidaren esleipendunek partzela edo trasteleku emakidaren **prezioaren % 3** ordainduko dute fidantza jartzeko.

Fidantza erabiliko da Baldintza-Plegu honek jarritako kasuetarako, zerbait gertatuko balitz erantzuteko, eta bestela, indarrean dauden legeek aurreikusten dutenean erabiltzeko.

Aparkaleku-partzela trastero gabe:  $14.600 * \% 3 = 438 \text{ €}$

Aparkaleku-partzela trasteroarekin:  $20.500 * \% 3 = 615 \text{ €}$



## ONDARROAKO UDALA

Guztira ordaindu beharreko prezioa aparkaleku plaza bakoitzeko ondorengoa izango da:

	EMAKIDA PREZIOA	ITP/AJD (%4)	FIDANTZA (%3)	GUZTIRA (€)
<b>Aparkaleku-plaza trastero gabe</b>	14.600	584	438	<b>15.622</b>
<b>Aparkaleku-plaza trasteroarekin</b>	20.500	820	615	<b>21.935</b>

## II. KAPITULUA.- EMAKIDADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

### 8. artikulua.- *Emakidadunen betebeharrak.*

Emakidadun den edonork betebehar hauek edukiko ditu, derrigorrezkoak, hauek hain zuzen ere:

- a) Emakida zertarako den errespetatuko du. Partzelak bakar-bakarrik erabiliko ditu ibilgailu partikularrak (turismoak) aparkatzeko.
- b) Elkarre bat sortu eta Udalak Elkarre bat sortzeko onartutako estatutuak beretzat hartu, nahiz eta gero, elkarre bat sortutakoan bertako Batzar Nagusiak erabaki dezakeen aldatzea. Dena dela, aldatu nahi izatekotan Udalaren baimena behar da eta edozein aldaketa eginda ere, Estatutuetan honako Baldintza-Plegu honetan xedatutakora egon behar da.
- c) Garajeko funtzionamendu-gastu arruntak ordaindu: adibidez, argia, ura, garbiketa, igogailua, badoak, aseguruak, administrazioa, e.a. Baita ere eraikina eta instalazioen mantenimendua, artapena eta konponketa arruntak eta ez arruntak (adibidez, igogailuaren kabina berriztatzea edo kabina berri bat instalatzea). Udalak ere berari dagokion zatia ordainduko du eman gabe geratu denik bada, dagokiona.
- d) Okupatuko duen jabari publikoko zatia (aparkalekua) garbi eta txukun mantendu, denentzako instalazioak ere bai, eta batez ere, suteen aurkako sistemak, ipini Udalak ipiniko ditu eta emakidadunak zainduko erabiltzeko moduan egon daitezzen. Elkarteko organoen ardura eta erantzukizuna izango da.
- e) Arazoren bat edo konponketaren bat egin beharra dagoenean horren berri emango dio Udalari; Elkarteko organoek beraiek jakinaraziko diote, arauen arabera, Udalari badagokio dena delako konponketaz arduratzea.
- f) Partzela ondo egon behar da itzultzeko momentuan, partzela bera eta giltzak itzuliko dizkio Udalari emakida deuseztatzean, hau da, Plegu honen arabera epea amaitu denean edo aurreikusitako beste zerbait gertatu denean. Interesatua ados ez badago udalaren erabakien aurka egitea badauka.
- g) Partzelan aparkatuko duen ibilgailuak zein matrikula daukan adieraziko dio Udalari.



#### **ONDARROAKO UDALA**

- h) Bete dituen baldintzaren batean huts eginez gero eta horren ondorioz bete gabe geldituko balitz Pleguaren 5. artikuluan emakidadunentzat finkatu diren baldintzetako bat, Udalari adierazi beharko lioke.

#### **9. artikulua.- Emakidadunentzat debekatua.**

Debekatu egiten da emakidadunentzat:

- a) Partzelak beste zerbaiterako erabiltzea, ibilgailu automobil partikularrak (turismoak) aparkatzeko ez den zerbaiterako, hain zuzen.
- b) Partzela bakoitzean ibilgailu bat baino gehiago batera aparkatzea. Emandako partzelatik kanpo aparkatzea ibilgailu osoa edo zati bat kanpoan utzita.
- c) Eraikin barrura sartzea zama astunekin, animalia arriskutsuekin edo jasangaitzekin, eta horiek barruan daudela aparkatuta lagatzea. Ibilgailua geldi eta motorra dabilela edukitzea.
- d) Kontrako martxan ibiltzea eraikin barruko kaleetatik, geziek adierazitakoari jaramonik egin gabe.
- e) Ibilgailua garbitzea Udalak ipinitako instalazioetatik kanpo, nonbait ipini baditu.
- f) Partzelaren itxura aldatzea: ez itxiturarik, ez hormarik pintatu, ez partzelaren perimetroa berriro pintatu, ez zenbakia aldatu, ez apalak edo altzariak ipini, eta ezer ere ez, haren itxura aldatu behar badu.
- g) Partzela edo trastelekua beste inork okupatzen uztea. Ez kostu-bidez ezta dohainik ere beste inoren ibilgailurik ezin da sartu, titularra bera ez bada edo bere familiako zein bere menpe bizi den norbait edo berarekin batera bizi den norbait ez bada. Debeku berezia da berrakura ematearena, edo beste edozein transmisio-modua egitatez edo eskubidez.

#### **10.artikulua. - Emakidadunen eskubideak.**

Administrazioaren emakidak eskubide hauek dakarzkio emakidadunari:

- a) Emandako partzelaren eta trasteroaren erabilera pribatiboa egokitu zaion ibilgailuarentzat.
- b) Beste emakidadunekin batera, erabilera hauek: denentzako espazioak eta zerbitzuak eta sarrera-irteerarako tokiak ibilgailuentzat zein oinezkoentzat.

Erabilera pribatiboa zein baterakoa honako arau hauetara egongo dira: Baldintza-Plegu hau, Elkartearen Estatutuak eta administrazioaren arauetara.



## **ONDARROAKO UDALA**

### **11. artikulua.- Udalaren eskubideak eta prerrogatibak.**

Ibaiondoko aparkaleku-eraikina jabari publikoko ondasun bat denez gero Udal administrazioak prerrogatiba batzuk dauzka beretzat, hain zuzen ere, hauek: inbestigazio-boterea, mugaketak, ofizioz berreskuratzea, desahuzio administratiboa eta zigortzeko ahalmena (Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiaren 44. artikulua).

Udalak, ofizioz edo Emakidadunen Elkarteko organoek eskatuta, inbestigazioak egin ahal ditu eta, aurretik espedientea ireki badu, emakidadunak zigortu euren betebeharretan huts egin badute.

### **12. artikulua.- Udalaren erantzukizuna:**

Udala arduratuko da eraikinak dituen ezkutuko akatsen konponketaz, baina kalteak inork eragin baditu badauka errudunaren aurka errepikatzea. Konponketak egin behar direnean Udal teknikarien iritziz beharrezkoa baldin bada partzela guztiak edo bakar batzuk libratzea konpondu bitartean, Udalaren esku dago partzelak hutsarazteko agindua ematea edo Udalak berak exekutatzeko, horretarako ahalmena dauka-eta. Ez dauka zertan kalte-ordainik ordaindu erabiltzaileei. Ahalmen bera dauka Udalak hondamendiren bat gertatu bada edo gertatu dena gertatu dela ere, hutsaraztearen premia baldin badago.

Udalak ez du bere gain hartzen aparkalekua eta bertan aparkatutako ibilgailuak zaintzeko ardura; hori erabiltzaileen edo, hala badagokio, erabiltzaile horien erkidegoaren ardura izango da.

Udalak ez du inolako harreman juridikorik edo lan-harremanik izango erabiltzaileek edo erabiltzaile horien erkidegoak emakida indarrean dagoen bitartean hartutako langileekin, ezta hori amaitutakoan ere.

### **13. artikulua.- Erantzukizuna istripuak eta apurketak gertatzen direnean.**

Aparkalekuko partzelen erabilera pribatiboa emakida demaniala denez gero ez da Udalaren betebeharra zaintza berezia ipintzea. Horren ondorioz, Udalaren erantzukizunetatik kanpo daude era honetako gertakariak: lapurreak, pertsonen, ibilgailuen edo gauzei kalteak eragin edo zerbait ostu, eta eraikin barruko instalazioak eta bertan dauden ibilgailuak zaindu.

Ostera, Udalaren erantzukizuna izango da zaintza orokorra, hau da, kanpoko aldea eta bide publikoak zainpean edukitzea.

### **14. artikulua.- Transmisioa.**

Kostu-bidezko transmisio modu guztiak debekatuta daude, bakarrik onartuko dira transmisioak dohainik egiten badira eta ezkontide eta titularraren zuzen lerroko odol-ahaideen artean, hirugarren graduraino, beti ere Udalak emakida emateko jarritako betebeharrak betetzen badituzte horiek ere (5. artikulua) eta transmisioa egiteko Udalak aurretik baimena eman badu.





#### **ONDARROAKO UDALA**

Egin bada partzela edo trasteleku baten transmisioa udalaren baimenik gabe erabat deuseza izango da; hori egiteak iraungiarazi egingo du aldez aurretik partzelaren edo trastelekuaren emakida eta hortaz, emakidadun horren partzela Udalaren eskuetara pasako da zuzenbide osoz, udalaren erabilera librea delarik. Udalak honela jokatuko du kasu hori gertatuz gero: emakida utzia

razi dela aitortu eta partzela berreskuratu edozein momentutan (Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiaren 70. eta 71. artikulua). Ez dago honen aurka interdiktirik aurkatzetik ez hirugarren erosle hipotetiko baten "fede ona" kualitatetik, ezta ere Jabetza Erregistroan hirugarren baten alde inskripzioa egin izana ere.

#### **15. artikulua.- Itzultzea.**

Emakidaren epea bukatzen denean, aparkalekuak eta trastelekuak lehengora itzuliko dira hau da Ondarroako Udalarentzat izango dira. Emakidadunak aparkalekua kontserbazio egoera onean itzuliko dio Udalari, ez du gehiago erabiliko, utzi egingo baitio jabari publikoko erabilera pribatiboari eta kalte-ordainik kobratzeko eskubiderik ez du edukiko.

Emakidaren epea bukatu baino hiru hilabete lehenago, udal teknikariek aparkalekuak eta trastelekuak aztertuko dituzte eta azterketa-tekniko horren ondorioz, aginduko dute zer egin behar den partzelak lehengo baldintzetan lagatzeko, hau da, obrak egin behar badira eta konponketaren bat egin behar bada. Egin beharreko obrak eta konponketak emakidadunen kontura izango dira. Horrela egin ezean fidantzatik kenduko da behar den diru beste, konponketok egin ahal izateko.

Baldin eta Agiri honetako 19. klausulako c) atalean aurreikusitakoarekin bat eginik, emakida iraungi bada emakidadunak berriaz uko egin diolako emakidaren epea amaitu baino lehen, itzuli egingo zaio emakidaren prezioa, hilabete osoak harturik, emakidaren amaierako epea bete arteko urteengatik dagokion zenbatekoan. Itzuliko da amortizatu gabe dagoen emakidaren balioari dagokion zenbatekoa, 31. Klausulan finkatutako formularen arabera.

Udalak beretzako gordeko ditu edo, nahi izanez gero, berriro emango ditu emakidan. Korporazioak emakidan berriro emateko Baldintza Plegu honetako jardunbidea jarraituko du edo bestela, Plegu berri bat egingo du honako hau aldatzeko eta Udalbatzak onartu egingo du.

#### **16. artikulua- Erreskatea.**

Emakidak ondoriorik gabe uzteko eskubidea dauka Udalak interes publikoko arrazoiak tartean daudela, nahiz eta emakidaren epea bukatuta ez egon. Ondorio gabetze hori behar den moduan arrazoituz eta emakidadunari sortzen zaizkion kalteak ordainduta egingo da, edo kalte-ordainik gabe, baldin eta Korporazioari indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenen arabera hala ez badagokio (Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiaren 120 artikulua).

### **III. KAPITULUA- ZIGORTZEKO ARAUBIDEA:**



## ONDARROAKO UDALA

### 17. artikulua- **Arau-haustea.**

1. Arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

1.1. Arau-hauste arinak ondorengoak dira:

- a) Betebeharren bat haustea bai 8. artikulukoak (emakidadunen betebeharrak) bai 9. artikulukoak (debekuak) g) atala izan ezik. Beti ere, kalte ekonomiko zuzenik ez sortzekotan.
- b) Emakidei buruz Alkatearen Dekretuei kasurik ez egitea.

1.2. Arau-hauste larriak ondorengoak dira:

- a) Emakidadunak zigor arinak behin eta berriz edukitzea, sei hilabeteko epe batean.
- b) Emakidadunaren jokaeragatik jabari publikoaren balioa edo instalazioena galaraztea.
- c) Jarduera bat burutze aparkalekuan edo trastelekuan bertan edo guztientzako diren gunetan.
- d) Elkaratearen kuotak ez ordaintzea bi urtetan.

1.3. Arau-hauste oso larriak, ondorengoak dira:

- a) Bi urteko epearen barruan zigor larriak behin eta berriz edukitzea.
- b) 9. artikulukoak (emakidadunen debekuak) g) atalean dakarrena haustea.
- c) Edozein arau hautsita ere eragindako kalteen ondorioz oso egoera kaltegarriak gertatu badira edo gerta badaitezke.

2. Bai jabari publikoari bai instalazioei kalteak eragiteagatik Administrazioak exijituko du kaltetutakoa konpontzeko, dagokion isuna jarriagatik ere; ustekabeen edo halabeharrez gertatu den zerbaiten ondorioa izan ezik.

3. Baldintza-Plegu hau onartzeak esan nahi du emakidadunak espreski aitortzen duela Udalaren ahalmena dela partzelatik botatzea (Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiaren 80.13 artikulua).

### 18. artikulua- **Zehapenak.**

1. Plegu honetako arau-hausteren bat gertatu bada isuna egokituko zaio ondorengo diru-kopuru hauen arabera:

- a) Arau-hauste arinak badira, 750 euroraino.
- b) Arau-hauste larriak badira, 1.500 euroraino.
- c) Arau-hauste oso larriak badira, 3.000 euroraino.

2. Isun hauetarako diru-kopurua urtero gaurkotuko da automatikoki Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera. Aurreko urteko diru-kopurua hartuko da oinarritzat.

3. Zigortzeko ahalmena Korporazioko Alkateari dagokio.



## ONDARROAKO UDALA

### **19. artikulua- Emakidaren iraungipena.**

Ondorengoak dira emakida iraungitzeko zioak:

- a) Kanona ez ordaintzea.
- b) Emakidaren iraupen-aldia bukatzea.
- c) Emakidadunak uko egitea emakidari.
- d) Emakidadunaren heriotza edo ezgaitasuna, 14. artikuluan aipatzen den oinorderik gabe.
- e) Porrot-aitorpena edo ordainketa-etenduraren aitortpena.
- f) Epai baten erabakia dela medio.
- g) Udalaren eta emakidadunaren arteko akordioa.
- h) Jabari publikoa desafektatu eta erreskatatzea.
- i) Urte beteko epean arau-hauste oso larri bi egitea.

## **IV. KAPITULUA- EMAKIDAK BANATZEKO PROZEDURA.**

### **20. artikulua.- Espedientea aztergai.**

Hirigintzako bulegoan daude edozeinek aztertzeko moduan bai lizitazioari buruzko espedientea bai beronen dokumentazio teknikoa. Horiek denak ikusi ahal dira 9,00etatik 14,00etara.

### **21. artikulua.- Eskaerak zelan aurkeztu.**

Eskaerak -pertsone bakoitzeko bat-, udaletxeko Erregistro Orokorrean (Kanttoipe 3) aurkeztuko dira, 9:00etatik 14:00etara deialdiaren iragarkian ezartzen den eguna epean. Iragarkiarekin batera deialdiaren laburpena argitaratuko da. Modu ofizialean ez ezik eguneroko prentsan eta udal web orrian ere argitaratuko da.

Epe barruan aurkeztuko dira eskabideak bestela ez dira kontutan hartuko, ez epea hasi aurretik ez epea amaitutakoan aurkeztukoak, alegia.

Eskabidea egin behar da eredu ofiziala beteta eta sinatuta, Baldintza-Pleguak dakar eredu hori l. eranskinean.

Eskaerarekin batera

- a) norbere NANA aurkeztuko du norbere izenean aurkezten duen pertsonak eta beste inoren apoderatua bada ere bai. Inor ordezkatzekotan aurkeztuko du apoderatu-izaera askietsia.
- b) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako gordeta dauden aparkaleku-partzelaren bat eskatzen bada, Ezinduentzako Txartela aurkeztu behar da.



## ONDARROAKO UDALA

- c) Ibilgailu automobil baten zergak udalerrian ordainduz eta enpresaren ibilgailua izateagatik, horren titularra izan ezean, enpresako gerente edo administradorearen ziurtagiria aurkeztu behar da, nork berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori ziurtatzeko eta Ibilgailuaren zirkulazio baimena.

Emakida eskatzeko bete beharreko baldintzak Udalak ofizioz egiaztatuko ditu.

### **22. artikulua.- Aukeraketa-Mahaia**

Aukeraketa-Mahaiaren kideak ondorengoak izango dira:

- Hirigintzako Udal Batzorde-burua.
- Udal Idazkaria
- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen zerbitzuburua.
- Udal Kontu-hartzailea
- Administrazio Orokorreko Teknikaria

### **23. artikulua.- Eskabideak onartzea edo baztertzea.**

1. Aukeraketa-mahaia: Eskaerak aurkezteko epea amaituta, aukeraketa-mahaia eratuko da.
2. Eskaera-multzoak eta lehentasunen ordena: Aurkeztutako eskariekin lau multzo egingo dira. Lehenengoa, mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat gordeta dauden aparkaleku-partzelak trastelekuarekin lotua; bigarrena, mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat gordeta dauden aparkaleku-partzelak eskuratzeko eskabideak; hirugarrena, aparkaleku-partzela trastelekuarekin lotua nahi duten eskabideak, eta laugarrena multzo orokorra izango da, eskabideak gainerako partzelentzako. Eta horrela egingo da, 5. Artikuluan aipatzen diren lehentasun maila bakoitzarekin.

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, mugikortasun murriztua duten pertsonen eskaerak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako ibilgailuen kopurua (17 ,86 , 111 eta 40 aparkaleku-partzela zenbakiak) baino txikiagoa bada, hutsik geratutako aparkaleku-partzelak gainontzeko eskatzaileen eskariak kubritzera bideratu ahalko dira.

3. Baldintzen egiaztapena eta akatsen zuzenketa: Udalak aurkeztutako eskariak egiaztatu beharko ditu, eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Horrela, udal zerbitzu ekonomikoek eskatzaileek zerga betebeharrak udalarekin egunean dituztela egiaztatuko dute.

Multzo bakoitzean, zerrenda bana egingo du Mahaiak, batean Baldintza-Pleguko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak zerrendatuta eta bestean ostera, baztertutakoak, baldintzarik ez dutelako bete edo epez kanpo aurkeztu dutelako. Udaletxeko Iragarki Taulan eta udal web orrian jarriko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda eta 10 eguneko epea emango



#### ONDARROAKO UDALA

da erreklamazioak aurkezteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko. Emandako epea amaitu eta antzemandako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera geratuko da.

4. Epea amaitu eta gero Mahaia ostera ere bilduko da erreklamaziorik aurkeztu bada erantzuteko, edo bestela, onartutakoen behin-betiko zerrenda zehazteko. Zerrenda hau Udaletxeko Iragarki Taulan eta udal web orrian jarriko da.
5. Erreklamaziorik ez bada, onartutakoen behin-behineko zerrenda izango da behin-betiko hartuko dena.

#### 24. artikulua.- **Zozketa publikoa.**

Zozketa publikoa egingo da Udaletxeko Pleno-aretoan, eguna eta ordua aurretik zehaztu ditu Udalak eta komeni den moduan iragarriko. Onartutako eskaeren artean zozketatuko dira dauden aparkaleku-partzelak (5.artikuluaren ezarritako lehentasun arabera), eta honelaxe:

1. Txartel batzuk prestatuko dira eta bakoitzari onartutako eskaerari jarritako zenbaki bera idatziko zaio. Txartelak atera ahala banatuko dira partzelak, atera bakoitzean zenbaki korrelatiboak esleituz, hau da, lehenbizikoari 1. partzela-zk. emango zaio, bigarrenari 2. partzela-zk. elkarren segidako guztiak amaitu arte. Eta horrela egingo da, 5. Artikuluaren aipatzen diren lehentasun maila bakoitzarekin.
2. Zozketa hasiko da mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat gordeta dauden partzelak trastelekuarekin lotua, bigarrenaz zozketatuko dira, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako gordeta dauden partzelekin, gero, zozketatuko dira aparkalekua trasteleku batekin lotua dauden partzelak, eta azkenik, multzo orokorreko eskabideak. Multzo bakoitzean partzelarik gabe gelditzen diren eskabideak, multzo orokorreko zozketara pasako dira.
3. Partzela eta eskatzaileak elkartuko dira, eskatzaileen zerrenda amaitu arte edo partzela guztiak adjudikatu arte. Itxaron-zerrenda bat egingo da zozketarako onartuta egon arren partzelarik lortu ez duten eskaerekin; txartelak aterata zenbaki korrelatiboak esleituko zaizkie hauei ere ondorio bakar batekin: V. Kapituluaren dakarren kasurako, beste eskubiderik edo espektatibarik gabe.

Era honetan ondorengo kasuak eman ahal izango dira:

- 1.Multzoko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua dauden aparkaleku plazak baino handiagoa bada, zozketan esleipendunak izango dira bakarrik 1.multzoko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak, aparkaleku plazen kopurura ailegatu arte. Aparkaleku-plaza lortu ez dutenekin itxaron zerrenda bat egingo da zozketan esleitutako ordena zenbakiaren arabera.  
Ondoren 2.Multzoko baldintza betetzen dutenekin zozketa egingo da, zozketaren bidez itxaron zerrendan izango duten ordena zenbakia edukitzeko eta ondoren, 3.Multzoko baldintza betetzen dutenekin egingo da zozketa, helburu berdinarekin.



#### ONDARROAKO UDALA

- 1.Multzoko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua dauden aparkaleku plazak baino txikiagoa bada, soberan geratzen diren plazak 2.Multzoko baldintza betetzen duten eskatzaileen artean zozketatuko dira eta aparkaleku-plaza lortu ez dutenekin itxaron zerrenda bat egingo da zozketan esleitutako ordena zenbakiaren arabera. Ondoren, 3.Multzoko baldintza betetzen duten eskatzaileen artean egingo da zozketa, zozketaren bidez itxaron zerrendan izango duten ordena zenbakia zehazteko.
4. Ondoren, zozketaren emaitzak akta batean jasoko dira; batetik, zerrenda bat, eskaera-zenbakiak eta egokitu zaien partzela zenbakia zein den jasotzeko, eta bestetik, partzelarik egokitu ez zaien eskaeren zerrenda. Akta hau mahaikide guztiek sinatuko dute.
  5. Mahaiak erabakiko du, gehiengoz, edozein auziren gainean, batez ere, arauotan jasota ez dagoen zerbait argitu edo erabaki beharra badago eta baita arauok interpretatzeko edo, egokiak deritzeten aldaketak egiteko ere.

Zozketak ez dio eskubiderik ematen proposaturako esleipendunari, eta Udalbatzak esleipena egin arte, ez du eskubiderik izango.

Udaletxeko Iragarki Taulan eta udal web orrian jendaurrean jarriko zozketaren ondorioz aukeratuak izan diren pertsonak eta itxaron zerrenda ere.

#### **25. artikulua.- Emakidaren ordainketa.**

Udalak hauxe jakinaraziko dio interesatu bakoitzari: bere eskaera onartu dela eta emakidaren prezio osoa (partzela bakoitzaren emakidaren prezioa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko zerga eta fidantza) ordaintzeko 15 eguneko epea izango duela jakinarazpena jaso duenetik.

Ordainketa Caja Laboraleko ondorengo kontu korrante zenbakian egingo da, EMAKIDAREN ZENBAKIA eta ESLEIPEDUNAREN IZENA emanaz: **ES26-3035-0021-16-0210072569**.

Esleipendunak diru kopuru hori ez badu jarri epea amaitu eta gero, ulertuko da ezetsi egin diola aparkaleku-partzela eskaerari, eta uko egiten diola emakidadun izateko aukerari.

Horrelakorik gertatzen bada, dagokion emakida beste zozketa bat egin beharrik gabe, lehengo zozketarako eskaera onartu arren aparkaleku-partzelarik esleitu ez zaienen zerrendako lehenari eskaini ere. Kasu hauetan, esleipendun berriek epe bera edukiko dute behin jakinarazpena hartuta emakidaren zenbateko osoa ordaintzeko.

Edonola ere, emakidaren zenbateko osoa, emakida akreditatzen duen titulua formalizatu aurretik ordaindu beharko da.



## **ONDARROAKO UDALA**

### **26. artikulua.- Emakidaren esleipena.**

Emakidaren prezioa ordaindu ondoren, Udalbatzak aparkaleku-partzelen esleipena burutuko du.

Hutsik dauden hurrengo partzelen esleipena, Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko dira. Horretarako Alkatetzak ahalmena izango du Udalbatza osoak baldintza plegu hau onartzen duenean.

Horiek emakida guztiak Udal Ondasunen Inbentarioan agertuko dira honako epigrafean jasota: "Ondasun eta Eskubide Berreskuragarriak". (Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia, 28.1 artikulua).

Emakidak ez dakar jabetza-eskubidea eta hirugarrena kaltetu gabe egingo da (Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia, 80.11 artikulua).

### **27. artikulua.- Formalizazioa eta giltzak ematea.**

Aurreko izapideak egin eta gero, Udalak hauek denak emango ditu: emakida kreditatzen duen titulua, estatutuen kopia bat, eta giltzen kopia bana, oinez sartzeko atekoak eta automobilak sartzeko atekoak, eta baita ere infragorritzko urrutiko irekigailua, autoen sarrerako atea irekitzeko.

Interesatuak ordaindu beharko ditu, zergak eta esleipenaren formalizazioak eragiten dituen gastu guztiak, eta horrela eskatuz gero, eskritura publikoa eta erregistroko inskripzioaren gastuak ere.

Horietako bat edo beste galduz gero edo lapurtuz gero edo izorratuz gero, Emakidadunen Elkarteko Lehendakari edo idazkari-administrariarengana jo behar da bigarren kopia bat eskatzeko.

Emakida amaitzen denean, edozergatik izan bada ere, emakidadunak Udalari emango dizkio giltzak eta irekigailua.

## **V. KAPITULUA.- HUTSIK DAUDEN PARTZELEN ESLEIPENA.**

### **28. Artikulua.- Esparrua.**

Kapitulu honek, aginduzkoak izango diren baldintza juridiko administratiboak eta ekonomikoak nahiz prozedura zeintzuk izango diren finkatzen ditu hutsik gelditu diren partzelentzako, bere egunean eskatzaile faltagatik esleitu ez zirelako edota iraungita gelditzen direlako pleguan agertzen diren edozein zioengatik.

### **29. Artikulua.- Hutsik dauden partzelak esleitzeko prozedura.**

Eskabide berriak, Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira eskaera guztiak, Baldintza-Pleguen I. Eranskinean dakarren eskaera-ereduaren arabera. Eskaerarekin batera norbere NANA aurkeztuko du norbere izenean aurkezten duen pertsonak eta beste inoren apoderatua bada ere bai. Inor ordezkatzekotan aurkeztuko du apoderatu-izaera askietsia.



#### **ONDARROAKO UDALA**

Eskabideok Udaletxeko Erregistro Orokorrean sartu hala, zozketaren ondorioz egin den itxaron zerrendan sartuko dira (Pleguaren 24 klausularen arabera), edo, hau ez badago itxaron zerrenda berri bat egingo da, eta hauxe erabiliko da, zozketa bidez, hutsik dauden partzelak edo trastelekuak eskaintzeko.

#### **30. Artikulua.- Emakidaren epea.**

Kapitulu honek dioenaren arabera esleitutako aparkaleku-partzela bakoitzeko emakidaren epea bukatuko da, ezinbestean, aurretiaz egindako beste emakidekin batera.

#### **31.- Artikulua.- Emakidaren prezioa eguneratzea.**

Erosteke prezioa edo balio eguneratua zerbitzua abiarazi ondoren aparkalekuko plazaren gaineko emakida lortzen dutenentzat, formula baten bidez lortuko da, kontuan izanda jatorrizko adjudikazioak egin zirenetik igarotako denbora eta denbora tarte horretan kontsumoaren indizeak zer aldaketa izan duen:

$$PN=PO (N/E) [(1+IPC_0) (1+IPC_1) (1+IPC_2).....(1+IPC_n)]$$

PN= Salneurria emakida egin zen "N" unean

PO= Salneurria zerbitzua abian jarri zenean (.....)

N= Emakida amaitu arte igaro beharreko hilabete osoen kopurua.

E= Emakidaren denbora, guztira (360 hilabete)

KPI= Igarotako urte bakoitzari dagokion Kontsumoko Prezioen Indize ofiziala (urteko aldaketa, emakida ematen den hilabete hasierako erreferentzi modura hartuta), Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratua.

#### **32. Artikulua.- Ordaintzeko modua.**

Interesatuari jakinarazten zaionean plazaren bat hutsik dagoela, honek 15 eguneko epea edukiko du aginduko zaion kontu korrontean emakidaren kopuru osoa ordaintzeko (emakidaren prezioa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eta fidantza) eta ordainagiria emango zaio. Udalak berehala Alkatearen erabaki bidez adjudikazioa egingo du eta giltzak eta dokumentazioa emango du.

Esleipendunak aipatutako diru kopuru hori ez badu ordaindu epea amaitu eta gero, ulertuko da ezetsi egin diola aparkaleku-partzela eskaerari, eta uko egiten diola emakidaduna izateko aukerari.

#### **33. Artikulua.- Bestelako baldintzak.**

Emakidaren beste baldintzak ezaugarriak, eskubide eta betebeharrak, zigortzeko araubidea, araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna, nahiz emakidadunen elkartearen estatutuak, Baldintza Plegu honetakoak izango dira.





ONDARROAKO UDALA

## **VI. KAPITULUA: ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

### **34. artikulua .- Araubide juridikoa.**

Hau Baldintza Plegu hau da legea emakidak ematen direnerako. Udala zein emakidadunak biak daude beroni lotuta emakidak dirauen bitartean.

Emakida guztietarako dira aginduzkoak arau hauek guztiak: honako Baldintza-Plegua eta indarrean dauden legezko arauak, batez ere hauek: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa; 781/1986 Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruzko gaietan indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateratua; Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia, 1986ko apirilaren 13koa; Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legea eta hori garatzen duten xedapenak.

### **35. artikulua.- Interpretazioa.**

Udal Administrazioak du baldintza-agiri honetako klausulak interpretatzeko eta hori betetzean izan daitezkeen zalantzak argitzeko eskumena.

Bere eskumenak erabiliz hartutako erabakiak berehala burutu beharko dira.

Agiri hau eta emango diren erabilera emakidak interpretatzean, aldatzean eta horren ondorioak aztertzean egon litezkeen auzigaiak Udalak erabakiko ditu. Erabaki horien aurka dagozkien errekurtsioak jarri ahal izango dira Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen arabera eta, hala badagokio Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren aurrean bideratuko dira

### **36. artikulua.- Jurisdikzio eskuduna**

Administrazioarekiko Auzitarako jurisdikzioak edukiko du eskumena alderdien artean sor daitezkeen ezadostasunen gainean erabakitzeko. Edozelan ere, Alkateak prerrogatiba hauek edukiko ditu: kontratua interpretatu, zalantzak argitu, interes publikoko arrazoiengatik aldatu, amaiera erabaki eta horren ondorioak zeintzuk diren zehaztu.



**ONDARROAKO UDALA**

**IBAIONDO 4 KALEKO APARKALEKU-PLAZA ERABILERA PRIBATIBOA EDUKITZEKO**  
**ADMINISTRAZIOAREN KONTZESIO ESKABIDEA**

**1-ESKATZAILEA**

IZEN-ABIZENAK		NAN	
JAKINARAZTEKO HELBIDEA		PK	HERRIA
LURRALDEA	TELEFONOA 1	TELEFONOA 2	E-MAIL

**2-BESTE INOREN IZENEAN**

IZEN-ABIZENAK		NAN	
JAKINARAZTEKO HELBIDEA		PK	HERRIA
LURRALDEA	TELEFONOA 1	TELEFONOA 2	E-MAIL

**3-ADIERAZI AUKERAK (\*IKUS KONTZESIOA ESKATZEKO LEHENTASUNEN BALDINTZAK ATZEKALDEAN)**

- |  |
|--|
| <input type="checkbox"/> ONDARROAN ERROLDATUTA NAGO                                  |
| <input type="checkbox"/> IBILGAILUEN ZERGA ONDARROAN ORDAINTZEN DUT                  |
| <input type="checkbox"/> MERKATARIA/PROFESIONALA NAIZ (JARDUERA-IAE ONDARROAN ALTAN) |
| <input type="checkbox"/> ETXEBIZITZAREN ZERGA (IBI) ONDARROAN ORDAINTZEN DUT         |

**4-IBILGAILUARI BURUZKO DATUAK**

MATRIKULA	MARKA ETA MODELOA	MUGIKORTASUN MURRIZTUA( APARKATZEKO TXARTELA DESGAITASUNA DUTENENTZAT) BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>
-----------	-------------------	---

**5-ESKATZEN DUT**

- |   |
|---|
| <input type="checkbox"/> APARKALEKU-PLAZA TRASTELEKU GABE |
| <input type="checkbox"/> APARKALEKU-PLAZA TRASTELEKUREKIN |

**6-AITORTZEN DUT:**

- Ezagutzen ditudala zeintzuk diren kontzesioa arautzen duten baldintzak, horiek betetzen baititut, Udalak onartutako baldintza-Plegua, hain zuzen, eta beraiek oso-osoan onartu eta niretzat hartzen ditut.
- Ez nagoela sartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 2017/9 Legearen 71. artikuluan jasotako kontratatze debeku bakar batean ere.
- Kontzesioa hartzeko hautagaien artean egotekotan, betebeharrak hau hartzen dut nire gain: kontzesioaren prezioa ordaindu, Pleguak finkatzen duen moduaren arabera ordaindu ere, hau da, fidantza bat jarrita. Baita ere, gainerako kontzesiodunekin batera Erabilzaile-Elkarte bat sortu eta niretzat hartuko ditut Udalak horretarako onartu dituen Estatutuak.

**7-ONDARROAKO UDALARI BAIMENTZEN DIOT:**

- Egiazta dezan egunean ditudala zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.
- Egiazta dezan eskabide honetako gainerako baldintzak bete ditudala eta eguneratzeko beharrezkoa den dokumentazioa, hala behar denean.

Ondarroan, 2019ko.....(a)ren.....(a)n

Sinadura



## ONDARROAKO UDALA

### ESKARIAREKIN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eskatzailearen NANaren fotokopia. Beste inoren ordezkariaren kasuan, ordezkariaren NANaren fotokopia eta legezko ordezkapena egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia (notario-ahalordea...)
- Mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkaleku-plaza eskatuz gero:** Desgaitasuna dutenentzat ibilgailua aparkatzeko txartelaren fotokopia.
- Enpresa-ibilgailuen kasuan (betiere, ibilgailuen zerga Ondarroan ordaintzen bada):** Ibilgailuaren titularra ez bada, enpresako gerente edo administradorearen Ziurtagiria, ziurtatzeko eskatzailea dela ibilgailuaren erabiltzaile bakarra eta ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.

### \*KONTZESIOA ESKATZEKO LEHENTASUNEN BALDINTZAK

Eskatzaileen kopurua aparkaleku-plazaren kopurua baino handiagoa bada, honako lehentasunen arabera adjudikatuko dira:

- 1) MULTZOA: 1. MAILAKO LEHENTASUNA: Bi baldintza hauek betetzen dituztenak.
  - a. Eskariak aurkezteko epearen aurretik Ondarroako Biztanleen Udal erroldan inskribatuta egotea.
  - b. Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea eta ibilgailu horren zergak udalerrian ordaintzea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- 2) MULTZOA: 2. MAILAKO LEHENTASUNA: Bi baldintza hauek betetzen dituztenak.
  - a. Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
  - b. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (IAE) altan egotea, Ondarroako udalerriaren eremuan, gutxienez, edozein epigrafe ekonomiko edo profesionaletan.
- 3) MULTZOA: 3. MAILAKO LEHENTASUNA: Bi baldintza hauek betetzen dituztenak.
  - a. Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
  - b. Ondarroako udalerrian etxebizitza bat izatea eta Ondasun Higiezinaren Zerga (IBI) ordaintzea.

Lehentasuna izango dute 1.multzoko baldintza betetzen duten eskatzaileek 2.multzoko baldintza betetzen dutenekiko eta 2.multzokoek 3.multzoarekiko.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako 4 aparkaleku plaza dagokienez, aparteko zozketa bat egingo da.



ONDARROAKO UDALA

## II. ERANSKINA

### **IBAIONDO 4KO APARKALEKU-PARTZELEN ETA TRASTELEKUEN EMAKIDADUNEN ELKARTEAREN ESTATUTUAK.**

1. artikulua.- Estatutu hauen helburua da arau bidez finkatzea Ibaiondo 4 zenbakiko aparkaleku-erakinean egongo diren partzelak eta trastelekuak erabiltzeko erregimena, gozamina, funtzionamendua eta mantenamendua.

Estatutu hauetan aurreikusten ez dena, 1960ko uztailaren 21eko Jabetza Horizontalaren Legearen arabera arautuko da.

2. artikulua.- Partzelen eta trastelekuen emakidadunak nahitaez egongo dira arau hauen menpe: Udalak onartutako Baldintza-Pleguak xedatutakoa, Elkarteko Estatutu hauek eta indarreko arau administratiboak.

Elkarteko Batzar Nagusiaren esku egongo da estatutuok osatzea, interpretatzea eta aldatzea ere bai, baina udalaren baimena beharko du horretarako. Dena den, Estatutueta zer bait aldatuta ere Baldintza-Pleguko xedapenekin bat etorriko da beti.

3. artikulua.- Muga-lerro zuri finkoak partzela bakoitzeko zoruan pintatuta mugatuko dira partzelak. Zoruan ez ezik plano bertikalean ere mugatuko dira, zoruan pintatutako lerroen jarraipen ideala hartuko da mugak zeintzuk diren jakiteko sabairaino luzatuta.

Aparkalekuko toki libreak, hau da, partzelarik ez dagoen horiek, eta sarrera-irteerako gunek guztientzat izango dira, pasabiderako, maniobrak egiteko eta bestelako zerbitzuetarako. Toki horietan ezin da ez ibilgailurik aparkatu ez okupatu, ezta aldi baterako ere, zirkulazioa ezin delako eten ez eta maniobrak oztopatu.

Partzela eta trasteleku bakoitza mugatuta eta zenbatuta dago. Udalak erabakita dauka bakoitzari zein zenbaki dagokion.

4. artikulua.- Emakidadunak eskubidea edukiko du emandako trastelekua edo partzela beretzat erabiltzeko egokitu zaion ibilgailuarentzat eta beste emakidadunekin batera erabilera hauek: denentzako espazioak eta zerbitzuak eta sarrera-irteerarako tokiak ibilgailuentzat eta oinezkoentzat. Ondorengo artikuluetan zehaztuta datoz zeintzuk diren denentzako erabilera horietarako baldintzak.

5. artikulua.- Kontuan izanda aparkalekua zertarako egin den, erabilera eta gozamina ondorengo baldintzen arabera egingo da:

- a) Partzela bakarrik erabiliko da ibilgailu automobilak (turismoak) aparkatzeko ez besterik. Beraz, kamioiak edo autobusak ezin izango dira aparkatu.
- b) Ezin da partzela bakoitzean ibilgailu bat baino gehiago batera aparkatu eta emandako partzela barruan aparkatu behar da zati bat kanpoan utzi gabe.



#### **ONDARROAKO UDALA**

- c) Debekatuta dago eraikin barrura sartzea zama astunekin, animalia arriskutsuekin edo jasangaitzekin, eta horiek barruan daudela aparkatuta lagatzea.
- d) Debekatuta dago kontrako martxan ibiltzea eraikin barruko kaleetatik, geziek adierazitakoari jaramon egin gabe.
- e) Debekatuta dago ibilgailua garbitzea Udalak ipinitako instalazioetatik kanpo, nonbait ipini baditu.
- f) Partzela ezin da ezertarako aldatu: ez itxiturarik egin, ez hormarik pintatu, ez partzelaren perimetroa berriro pintatu, ez zenbakia aldatu, ez apalak edo altzariak ipini, eta beste edozer ere ez, haren itxura aldatuko badu.
- g) Partzela ezin da erdibitu ez eta besterik gehitu edo erantsi partzela berri bat lortzeko.

6. artikulua.- Aparkalekuko partzela eta trasteleku bakoitzari kuota bat ezarriko zaio Elkarteko gastuak ordaintzeko, bakarra eta urtean behin ordaintzeko. Aparkalekuko titulartasun bakoitzari boto eskubide bat dagokio Emakidadunen Batzar Nagusian.

7. artikulua.- Emakidadunen betebeharrak ondorengoak dira:

- a) Elkartearen karguak onartzea eta karguaz jabetzea.
- b) Aparkaleku-partzela eta trastelekua erabili beste emakidadunen eskubideei kalterik egin gabe.
- c) Elkartearen gastuak ordaintzea bakoitzari dagokion partizipazio-kuotaren arabera, aurreko artikuluan aipatutakoa, hain zuzen.
- d) Obrak eta instalazioak egoera onean mantentzea.

8. artikulua.- Elkartearen gastuak ondorengoak dira:

- a) Garajeko funtzionamendu-gastu arruntak ordaindu: adibidez, argia, ura, garbiketa, igogailua, badoak, aseguruak, administrazioa, e.a. Baita ere eraikina eta instalazioen mantentzea, artapena eta konponketa arruntak eta ez arruntak (adibidez, igogailuaren kabina berriztatzea edo kabina berri bat instalatzea).
- b) Ordaindu beharreko zergak bai aparkalekua erabili ahal izateko bai titulartasuna edukitzeagatik zein ustiapenagatik ordaindu beharrekoak, adibidez, automobilen sarrera-irteerako pasabidea edukitzeko baimena, eta beste gastu batzuk, hala nola, Emakidadunen Elkartea eginez geroztik sortuko direnak.
- c) Asegururik kontratatu bada, haren primak ordaintzeko gastuak.
- d) Emakidadunen Elkarreak onartzen dituen bestelako gastuak.

9. artikulua.- Aparkalekuaren gobernua edo administrazioa, ondorengo organoei dagokie:



## ONDARROAKO UDALA

- a) Emakidadunen Batzar Nagusia
- b) Lehendakaria
- c) Idazkari-administratzailea.

Idazkari-administratzaile kargua beteko duenak ez dauka zertan izan partzela baten emakidaduna.

10. artikulua.- Elkarteko lehendakariaren eta honen ordeztari denean, administratzaile-idazkariaren esku egongo dira honako hauek:

- a) Aparkalekuaren gastu guztiak ordaintzea.
- b) Mantentze-kontratuak, aseguruak eta bestelako kontratuak sinatzea.
- c) Administrazio mailako zeregin arrunt guztiak betetzea eta sortzen diren gastuak ordaintzea. Dena delako gastua urteko aurrekontuaren % 20 baino gutxiago baldin bada, bestela, Batzar Nagusiak baimena eman behar du.

11. artikulua.- Urteko gastuen aurrekontua lehendakariak eta idazkari-administratzaileak prestatuko dute, aurreikusitako gastu horien arabera emakidadunek dagokien kuota ordainduko dute eta horrela, mantentze-gastuak eta betebeharrak behar den moduan bideratuko dira.

12. artikulua.- Idazkari-administratzailea arduratuko da aparkalekuko kontu guztiez eta, gutxienez, urtean behin, emakidadunen Batzar Nagusian aurkeztuko ditu.

13. artikulua.- Elkartearen organoak arduratuko dira bai aparkalekua bai denentzako instalazioak garbi eta txukun mantentzeaz, eta batez ere, prest edukiko ditu Udalak sutearen aurka jarri dituen sistema guztiak edozein momentutan erabilgarri egon daitezen. Eraikuntzaren erabilpen eta mantentze egokia erakinaren liburuaren "erabilpen, mantentze eta egitekoaren egutegia" izeneko atalean agertzen direnak egin behar dira. Erabiltzailek eraikinaren liburua onartuko dute.

Udalak bere gain hartuko du obrak egin beharra bakar-bakarrik eraikuntzak berak eragin badu kalteren bat edo zerbait hondatu baldin eta gaitutako teknikari baten txostenak adierazten badu eraikuntzak eratorria dela. Horrelako arazoren bat gertatuz gero udala jakinaren gainean jarriko du bai Elkarteko lehendakariak berak bai idazkari-administratzaileak.